

SEIGARREN GAIA: ESTATUA ESTATU DEMOKRATIKO BEZALA

1. TEORIA DEMOKRATIKOA

1.1. DEMOKRAZIA ETA HERRI SUBIRANOTASUNA

Ezin da egon herrialde demokratiko bat non herri subiranotasuna bermatuta ez dagoenean. Herrialde bat herrialde demokratikoa dela esan dezakegu herriak subiranotasuna duenean. Herrialde bat subiranoa eta demokratikoa da, herriak boterea duenean. Herritarren partaidetza ahalbidetu eta sustatu. Elkarte, sindikatu eta alderdi politiko demokratikoak ahalbidetu beharko dira. Gutxieneko eskubide batzuk bermatuta ego behar dira eta ez dira bakarrik parte hartze politikoarekin lotura dutenak, bermatuta ere egon behar dira eskubide sozialak (herritarren hezkuntza, herritar guztiak jatea...); gero ikusi beharko dugu nola bermatzen diren eskubide sozial horiek, ikuspuntu desberdinak baitaude.

Demokrazia batek bi osagai behar ditu DEMOS (herriaren) KRATOS (boterea). Gaur egun DEMOS dagoela esan dezakegu herriak bozka ematen duelako, baina KRATOS dagoela zalantzan jar dezakegu, zeren eta bozkatzan dugun ordezkariak ez beti lortzen dute boterea. Grezian adibide garbi bat ikusi dugu orain dela gutxi Syriza hauteskundeak irabazi zuen baina irabazi bezain laster Troikak esan zion bere programa ezin zuela aurrera eraman; Greziar parlamentuak legeak ingelesez tramitatzen ditu, troikatik datozen bezala.



Demokrazia ereduak:

- **Liberal-bermatzailea:** Liberalismoaren oinarritzko eredua da, eta oinarritzen da boterearen kontrolean eta norbanakoari/indibiduoari egindako gorazarrean (indibidua da gorena sistema onentzat). Bere helburu nagusia litzateke norbanakoa estatuarengandik babestea.

Ikuspegi honen atzean dago "estatua minimoa izan behar" denaren ideia. Ezaugarriak:

- 1- Botere banaketa bermaturik egon behar du.
- 2- Ordezkarrienganako kontrola egon behar du (kontrol mekanismoak).
- 3- Herritarrei bermatu behar zaie eskubide zibilak (Jabetza askatasuna, funtsezkoa).
- 4- Gobernatuen oniritzi edo kontsentimendua lortu behar da.

Adibidez, Margaret Tacherren Ingalaterra.

- **Demokrazia partehartzailea:** Aurreko ereduari (liberal-bermatzaileari) kritika egiten dio eta planteatzen dena da: ezin da norbanakoa era isolatuan ulertu, baizik eta jendartean txertaturik. Demokrazia ez da izango boterearengandik independenteak diren herritarren joko bat, baizik eta, erabaki kolektiboek administrazioarekin bat egiten duten eremu bat. Fusio moduko bat ematen da estatuaren eta norbanakoaren artean. Ezaugarriak:
 - 1- Herritargo informatu bat aktiboki parte hartzen duena sisteman
 - 2- Herritarren artean erabakiak hartzea (deliberazio kolektiboa)
 - 3- Erabakiak hartzeko sufragio unibertsala eta orokorrean instituzioen erabilera herritarren partetik


Demokrazia modu honetan norbanakoaren garapen pertsonala ematen da erabaki publiko politikoetan parte hartuz. Adibidez erreferendum bat.

- **Demokrazia lehiakor-pluralista:** Kasu honetan joko demokratikoa elite batzuen esku geratzen da eta sistema litzateke ongi prestaturiko eliteak hautatzeko eta elite horien gobernuak baimentzeko sistema. Ezaugarriak:
 - 1- Konpetentzia ematen da auto-hautatu diren bi politikari talderen artean. Kasu honetan hauteslearen papera ez da izango erabaki politikoaren gainean eztabaidatu eta erabakitzea, baizik eta, hori egingo duten ordezkariek hautatzea. Sistema honen atzean dagoen ideologia, demokrazia garrantzitsuegia dela herritarren herrietan usteko.

Demokrazia modu honen adibide bat Amerikako Estatu Batuak dira.

1.2. ORDEZKAPEN TEORIAK



- **Aginduzko agindua:** Erakunde edota kide batengan delegatzen den boterea, zeina hautatua izan baiten edukian eta denboran definiturik dagoen jarduera bat egiteko, irizpide zehatzak jarraituz zeintzuetatik ezin baiten aldendu. Jean Jacques Rousseau; esaten zuena zera zen: “diputatuak ez dira herri ordezkariak, komisarioak dira, beren kabuz ezin dute deus erabaki”. Honen atzean dagoen ideologia herritarren eta ordezkarien arteko kontratu lotesle bat dago eta ordezkariak bete behar ditu zehaztasunez herritarrek ematen dioten irizpide guztiak.



- **Ordezkaritzako agindua:** Mandatu politikorako forma orokor bat, beraz, ez zehatza, askea (loturarik gabekoa) eta ezin dena atzera bota (gazteleraz: no revocable). Kasu honetan ordezkariak erabaki propioak hartzen ditu, emandako hitzetik aldendu daiteke ordezkariak eta ez ditu zertan bere konpromisoak bete behar. Ezaugarriak:
 - 1- Legebiltzarra da ordezkatzeko instituziorik garrantzitsuenak.
 - 2- Ordezkatzeko politikoa da botereari zilegitasuna ematen diona.
 - 3- Berdintasun printzipioa (herritar guztiak berdinak dira eta eskubide zibil eta politikoak dituzte).
 - 4- Agintaldia bukatu arte legebiltzarraren hautapena ezeztatzina da (ezin da atzera bota).
 - 5- Alderdi politikoen garrantzia

1.3. ORDEZKARITZA DEMOKRAZIA

Gaur egun mundu mailan indarrean dagoen konstituzionalismo demokratikoa ordezkartzan oinarritzen da. Horrek esan nahi du: aldiari aldiro askeak diren hauteskundeetan herritarrek ordezkariak hautatzen dituztela. Argudio nagusiak defendatzeko ordezkartzako demokrazia da esatea, ordezkartzak normalean demokrazia errazten duela.




Ordezkaritza demokraziaren funtzionamendurako osagaiak bi dira:

- 1- Alderdi politikoak: Hauteskunde eskaintza arrazional eta erabilgarria egiten dute.
- 2- Hauteskunde sistema: Hauteslearen iritzia erabaki bideratzeko sistema izango litzateke.

Gaur egun bateratasun dextente dago doktrinan (adituen ustetan) esateko ordezkaritza demokraziak krisian daudela.

1.4.HAUTESKUNDE SISTEMAK

Hauteskunde sistema hautesle gorpuaren erabakia aurkezten duen sistema da, edo beste modu batean esanda hautesle gorpuaren borondatea juridikoki sortzen duen prozedimendua da. Bere osagaiak lau lirateke:



2-Eserleku zenbakia

3-Hauteskunde barrutiak

4-Lege langa: minimo bat dagoela (%) eserleku bat lortzeko

***Gehiengodun sistemetan** ordezkaritza osoak eramaten du zerrendarik bozkatuenak, AEBen sistema hau aurki dezakegu. Minoriak kaltetuta egoten dira. Itzuli bakarrekoak ala bi itzulikoak izan daitezke; bi itzuliko gehiengodun sistema Frantzia izango litzateke. Bigarren itzulira heltzen dira, lehenengo itzulira pasatu diren hautagaiak. Bigarren itzulian minorien kalte hori gutxitu egiten da (akordiotara heldu beharra dagoelako). Gobernagarritasuna errazten dute eta normalean bipartidismora jotzen du sistema honek.

*₁ **Sistema proporzionaletan** lortuko den ordezkaritza kopurua gutxi gorabehera bat dator bozka kopuruaren portzentaiarekin. Bi modu daude aulkiak banatzeko sistema proporzionaletan.

- **Gerakin handien sistema:** ADIBIDEA:

1000 bozka

10 hautesle

Batez besteko bat ateratzen eman diren bozka eta aurkezten diren hautesleen artean jakiteko zenbat bozka lortu behar diren eserlekua lortzeko. Kasu honetan 100 bozka atera behar dira eserleku bat eskuratzeko.

A alderdia → 660 bozka → 6 eserleku

B alderdia → 340 bozka → 3 eserleku.

9 eserleku banatu dira 10.eserlekua **gerakin handiena** duen alderdia lortuko du, beraz, A alderdiak lortuko du 10.eserlekua kasu honetan.

- **Bataz besteko handien sistema: ADIBIDEA:**

1000 bozka

10 hautesle

Batez besteko bat ateratzen eman diren bozka eta aurkezten diren hautesleen artean jakiteko zenbat bozka lortu behar diren eserlekua lortzeko. Kasu honetan 100 bozka atera behar dira eserleku bat eskuratzeko.

A alderdia → 660 bozka → 6 eserleku. $\frac{660}{6} + 1 = \%94'28$

B alderdia → 340 bozka → 3 eserleku. $\frac{340}{3} + 1 = \%85$

D'HONT SISTEMA

Eragiketa bakarra bi fasetan:

- 1°. Hautagaien zerrenda bakoitzak lortu duen boto-kopurua zenbatu ondoren, emaitza hori zenbaki kardinalen (1-2-3-4-5...) artean zatitu behar da zenbaki jakin bat lortu arte, alegia, barruti horretan hautatu beharreko eskainu guztiak adierazten dituen zenbakia.

A (168.000 boto) B (104.000 boto) C (72.000 boto) D (64.000 boto) E (40.000 boto) F (32.000 boto)

División	1	2	3	4	5	6	7	8
A	<u>168.000</u>	<u>84.000</u>	<u>56.000</u>	<u>42.000</u>	33.600	28.000	24.000	21.000
B	<u>104.000</u>	<u>52.000</u>	34.666	26.000	20.800	17.333	14.857	13.000
C	<u>072.000</u>	36.000	24.000	18.000	14.400	12.000	10.285	09.000
D	<u>064.000</u>	32.000	21.333	16.000	12.800	10.666	09.142	08.000
E	040.000	20.000	13.333	10.000	08.000	06.666	05.714	05.000
F	032.000	16.000	10.666	08.000	06.400	05.333	04.571	0.4000

- 2°. Eskainiak banatuko dira zatidura handienak lortzen dituzten hautagai-zerrenden artean. Gure adibidean, A zerrendak 4 eserleku izango ditu, B zerrendak 2, C zerrendak 1, eta D zerrendak beste 1.

2. ESTATU DEMOKRATIKOA ESPAINIAR KONSTITUZIOAN

Espainiar konstituzioari dagokionez, estatu demokratiko baten abiapuntua hitzaurrean bertan aipatzen da eta zehazki garrantzitsua da hitzaurreak balore interpretatiboa eta ideologia finkatzen duela, EKren 1.artikuluaren zuzenbide estatu sozial eta demokratiko baten aipamena egiten da artikulua horretan (**1.1.artikulu**). Hitzaurrean eta lehenengo liburuaren lehen kapituluetan estatu demokratikoaren elementuak aitortzen dira: askatasuna, pluralismo politikoa, elkarre eskubidea... **1.2.artikulu** (herri subiranotasuna), **3.2.artikulu** (hizkuntza aniztasuna onartzea) **6.artikulu** (aniztasun politikoa), **7.artikulu** (sindikatuak, elkarreak...), **9.1.artikulu**, **9.2. artikulua**, **10.1.artikulu**, **20.1.artikulu**, **23.1.artikulu**...